



Gaia: 5/2017

(...)KO DEPARTAMENTUKO ZUZENDARI NAGUSIA DEN (...) ANDREAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO EBAZPENA, EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO KIDE IZATEKO GONBIDAPENA JASO DUELA ETA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoaren Erakundearen Etika Batzordeari 2017ko azaroaren 8an bidalitako posta elektroniko baten bidez, interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...)ko Departamentuko (...) zuzendari nagusia bera, Erakundearen Etika Batzordearen iritzia eskatzen du Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide izateko gonbidapena jaso duela eta.

2.- Posta elektronikoan, eskatzaileak dio gonbidapena jaso duela Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide izateko, eta planteatzen du ba ote den talkarik erakunde horretako kide izatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakunde Osotasunaren Sistemaren artean.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horrek berekin du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kode bat, zeinak ezartzen baititu foru kargu publikoek eta asimilatuek bete eta sustatu behar dituzten arauak, beren funtzioak eta jarduera publikoak betetzean edo, hala dagokionean, baita esparru pribatuko jarduerak egitean ere, horiek jardunean ari diren erakundearen irudia kaltetu badezakete. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeko helburuarekin, erakundearen irudia babestuz.



2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen bizkarrezurrean zortzi balore daude: ordezkarritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, bizikidetza eta errespetua; eta, halaber, zortzi printzipio jasotzen dira: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea

Balore eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horiexek osatzen dute Erakundearen Etika Batzorde honek baliatu behar duen erreferentziatzko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezen interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkioten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemari aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzeri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak, 3.b) artikuluan xedatzen du EEBri dagokiola ebatzen, txosten edo oharren bidez ebatzea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Eskatzaileari Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zaio aplikagarri, haren 1.3 arau orokorreko 1. ataleko b) letran zehazten den aplikazio esparruaren ondorioz.



III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

Gaia da ea interes gatazkarik edo bateraezintasunik dagoen, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide izateko gonbidapena onartzeko bidea ixten diona.

1.- 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 47. artikuluan xedatzen du zuzendari nagusiek 37. artikulua foru diputatuentzat ezarritako bateraezintasun araubidea izango dutela; artikulua horrek, berriz, ezartzen du diputatu nagusiarentzat 24. artikuluan finkatutako bateraezintasun araubidea izango dutela; eta horrek, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari kargu publikoentzako bateraezintasunei buruzko legeriara igortzen du.

Ondorioz, bai diputatu nagusiari, bai foru diputatuei, bai eta zuzendari nagusiei ere aplikagarri zaie 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzekoak, aurreikusten duen bateraezintasun araubidea zaie aplikagarri.

Lege horrek, 14. artikuluan kargu publiko baten eta jarduera pribatuen arteko bateragarritasuna arautzen du, baldin eta jarduera pribatu horiek ez badute auzitan jartzen kargu publikoaren inpartzialtasuna eta independentzia bere zereginak betetzeko orduan. Horien artean, 14.1.d) puntuan hau dio:

d) Ordainsaririk jaso gabe parte hartzea irabazi-asmorik gabeko fundazioetan, elkarteetan edo erakundeetan, bai eta gizarte-balioak sustatzen dituzten interes sozial edo kultureko jardueretan aritzea ere.

Hori bat, garbi uzten du, hurrengo apartatuan, jarduera horietan aritzeak ezin izango duela eragotzi edo kaltetu kargu publikodunaren eginbeharrak eta obligazioak zuzen eta zorrotz betetzea, ez du arriskuan jarriko karguan inpartzialtasunez edo independentziaz jardutea eta ez dio interes publikoari kalterik eragingo.



Batzorde honek Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko zuzendaritzari kontsulta bat egin dio, eta hark azaldu du Elkarteko kideen jarduera dela Elkartearen urteko jarduera planean lankide izatea, eta, edonola ere, ez dela inolako ordain-saririk jasotzen horregatik. Aitzitik, Estatutuen 13.2 artikulua dio Elkartean sartzean, besteak beste, Elkartearen kargekin lagundu beharko duela "*...Batzar Nagusiak ezartzen dituen kuotak ordainduz...*".

2.- Orobat, kasu hau aztertzerakoan Gipuzkoako Foru Administrazioiko Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.2.b) eta 3.4.f) jarrera arauak aztertu behar dira eta hauek ondorengo erakundearen zuzentasun baloreei lotuta daude, hurrenez hurren: zuzentasuna eta zintzotasuna eta eskuzabaltasuna.

Zuzentasunak (JJEK 2.2.2 artikulua) dio ezen, zeregin publikoetan, foru kargu publikoek jokabide etiko egokia izango dutela, dela beren funtzio publikoak betetzean, dela erakunde roletik harago doazen bizitza pribatuko alderdietan. Halaber, proposatutakoaren eta erabakitakoaren artean koherentzia mantenduko dute bere jardueran, eta edonola ere, erabakiak hartzeko prozesua baldintzatu edo akordio horretan eta Kode Etikoan eta Praktika Onen Kodean jasotzen diren balio eta printzipioen gaineko eragin negatiboa izan dezakeen edozein kanpo presio saihestuko dute.

Hori babesteko, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean, 3.2.b) puntuan, eskatzen du foru kargu publikoen jokabide publiko zein pribatua eredugarria izango dela beti, eta eredugarritasun hori jarduera eta ekintza zehaztuz islatu beharko dela. Horretarako, beren erakundeetan giro etikoa sustatuko dute eta esparru horretan lan egiten duten pertsonentzako eredu izango dira. Beraz, ez dituzte erakundearen irudia kaltetu dezaketean jarduera edo jokabiderik izango.

Bere aldetik, zintzotasun eta eskuzabaltasunaren 2.2.4 artikulua dio foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo duela lan. Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, edo bestela, Etika Batzordeari, hala badagokio. Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, ez du parte hartuko dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka. Orobat, ez dute inolako opari edo onurarik onartuko, baldin eta horiek bere zintzotasuna zalantzan



jartzen badute edo erabakiak baldintzatzen dituzten irudi bat eskaintzen badute. Kargu publikoak ildo horretan inolako zalantzarik badu, hori berme organoari helarazi beharko dio horretarako zehaztutako bideak erabiliz,

Balio horrekin lotuta, Jokabide eta Jarduera Egokien Kodearen 3.4.f) artikulua, jardunbide, jarrera eta konportamentu hauek zerrendatzen ditu: f) Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu edo ordainketa ekonomikorik onartuko bere funtzioak betetzea hitzaldiak emateagatik edo karguari lotu - tako jarduerak egiteagatik, baldin eta horiek bere zintzotasuna zalantzan jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.

Bere aldetik, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko 11. artikulua dio Zenbakiko Lagun, bazkide eta eskubide osoko kide izango direla izendatuak izan eta elkartearen helburuak aplikatzen eta betetzen laguntzen dutenak. Helburu horiek 1. artikuluan zehazten dira:

"1. artikulua - Elkarte honen helburua Euskal Herriak Zientziekiko, Arte eta Letra Ederrekiko duen joera eta zaletasuna lantzea, ohiturak zuzendu eta fintzea eta euskaldunen arteko batasuna gehiago sustatzea da.

Helburu horretan zuzenduko ditu euskal Herriaren aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzen duten jarduera, azterketa edo ikerketa guztiak, eta herriaren hizkuntza, ohitura eta usadioak, eta historia aztertzen jarraituko du".

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean sartzeko baldintzei dagokionez, proposamenetan kontuan izango dira zenbakiko Adiskidearen historia akademiko eta giza historia, eta zainduko da hautatuek Herrialdeari maitasuna erakusten dioten jokabideak eta jarduerak izatea, Elkartearen jarduerak hartzen dituzten esparruetan kualifikazio nabarmen bat izatea.

Beraz, sartzeko proposamenek ez dute inolako loturarik kargu publiko bat betetzearekin; izan ere, zirikusia du hautatuek Herrialdeari maitasuna erakusten dioten jokabideak eta jarduerak izatearekin, Elkartearen jarduerak hartzen dituzten esparruetan kualifikazio nabarmen bat izatearekin.



Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA:

Lehena.- Interesdunak berehala hasi behar du bateraezintasunen alorrean aplikagarri den legediak aurreikusten duen administrazio prozedura tramitatzen, bateragarritasun aitormena eskatu eta lortzeko.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakunde Osotasunaren Sistemari jarraikiz, eta zehazki Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.2.b) eta 3.4.f) puntuei jarraikiz, eta 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, 14.1.d) artikuluan dioenarekin bat, Euskalerriren Adiskideen Elkartean sartzeak ez du urratzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.

Hirugarrena.- Euskalerriren Adiskideen Elkartean sartzeak ez ditu eragotziko edo kaltetuko interesdunak betetzen duen kargu publikoak berekin dakartzan betekizunak, eta ez du auzitan jarriko haren inpartzialtasuna edo independentzia, eta ez dio kalterik eragingo interes publikoari.

Donostia, 2017ko abenduaren 21a

Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria

Imanol Lasa Zeberio